Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

Informazio Buletina

2025KO ABENDUA

Buletin honetan aurkituko dituzu Mendebaldeko Saharari buruzko azken berriak eta Elkartearen urteko azken hiruhilekoko jarduerak. Zalantzarik gabe, orain inoiz baino gehiago, Giza Eskubideek eta Autodeterminaziorako Eskubideak guztiaren erdigunean jarri behar ditugu.







Buletin honetan, ondoko gaiei buruzko informazioa aurkituko duzu:

- 60. Giza Eskubideen Kontseiluaren bilkura-aldia
- EB-Maroko merkataritza-akordio berria saharari buruz
- NBEko Segurtasun Kontseiluaren 2797 ebazpena
- Giza Eskubideen eta Natur Baliabideen batzordeen bilera bateratua
- Martxa Berdearen Eta Hiruko Akordioen 50. Urteurrena
- 49 EUCOCO. Paris, 2025eko azaroaren 28an eta 29an
- Delegatu berria, Autonomia-erkidegoko Saharako Ordezkaritzan
- René Cassin Saria 2025
- Bidaiak kanpalekuetara
- SEADen aldarrikapenaren 50. urteurrena

Antonio de Sucre, 1 - 01003
Vitoria-Gasteiz
www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org

60. Giza Eskubideen Kontseiluaren bilkura-aldia

Kontseilua funtsezko gobernu-arteko erakundea da Nazio Batuen sistemaren barruan, eta 47 estatuk osatzen dute, mundu osoan giza eskubideak sustatzeaz eta babesteaz arduratzen direnak. Urte osoan zehar giza eskubideei eta haien arreta behar duten egoerei buruzko gai guztiak eztabaidatzeko gaitasuna du. NBEk Genevan duen bulegoan bildu da.

Beste behin ere, SEADen Lagunen Elkarteak modu aktiboan parte hartzeko aukera izan zuen Kontseiluaren 60. bilkura-aldian, 2025eko irailaren 8tik urriaren 8ra bitartean.

Saharar Herriaren eskubideen alde etengabe egiten den nazioarteko lanaren zati gisa, Elkartearen Ordezkaritzak, Saharako Ordezkaritzarekin batera, eta Jaime Tapiak lagunduta (Eusko Jaurlaritzako epaile ohia eta espetxeetako aholkularia), lan-bilera garrantzitsuak egiteko aukera izan zuen Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearekin (CICR), Espainiak Genevan duen Misio Iraunkorrarekin, Aljeriako enbaxadorearekin, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin eta iritzi- eta adierazpen-askatasunari buruzko Errelatore Bereziaren bulegoko taldearekin.



Bilera guztietan Saharar Herriaren egoera aztertu zen, giza eskubideen alderdi garrantzitsuak jorratuz: Espainiari egindako Aldizkako Azterketa Unibertsala (Elkarteak salaketa-dokumentu baten aurkezpen ofizialarekin parte hartu zuen), preso politikoen egoera, baliabide naturalen espoliazioa edo Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideen defendatzaileen aurkako errepresio etengabea.

EB-Maroko merkataritza-akordio berria saharari buruz

Isilpean eta azpikeriaz, Europar Batasunak Maroko eta EBri Mendebaldeko Saharatik datozen produktuak bien arteko itunetan sartzea galarazten zien EBko Auzitegiaren 2024ko urriaren 4ko epaia urratzea erabaki du.

Epaia urtebete geroago aplikatu behar zen, 2025/10/4an, baina Batzordeak ukatu egin du epaiarekin bat zetorren itun berri bat Marokorekin negoziatzen ari zela. Irailaren 10ean, azkenez, Kontseiluaren baimena lortu zuen horretarako. Harrigarria bada ere, 5 egunetan akordioa lortu zuen, baina, izapidetzeko denborarik gabe, behin-behinean aplikatzea erabaki zuen, Parlamentuaren nahitaezko botorik gabe eta gutunen truke moduan, hau da, premiazko prozeduraz.

Akordio berriak Auzitegiaren ebazpen guzti-guztiak urratzen ditu, eta Marokok esportatutako Mendebaldeko Saharako produktuak bereak balira bezala tratatzen ditu. Era berean, ez du Saharako herriaren zuzeneko baimenik, epaiak horretara behartzen baitu; aitzitik, Fronte Polisarioak eta sahararrek berariaz errefusatu dute, Lurralde Okupatuetan, Tindufeko kanpalekuetan eta Europako hiri askotan egindako elkarretaratzeetan. Aitzitik, baimen horren ordez, ustezko onura batzuk ezarri nahi ditu, errefuxiatuentzako zehaztugabeko laguntzen eta lurralde okupatuan egiteko diren inbertsioen bitartez, akordioaren gorputzean agertu ere egiten ez direnak eta, argi eta garbi, okupazio ekonomikoa eta biztanleriaren okupazioa indartzen dutenak. Ez da etiketetan ere "Mendebaldeko Sahara" jatorrizko izena errespetatzen, eta horrek nekazaritza-sindikatuen eta Europako kontsumitzaileen protestak eragin ditu.

Europako Parlamentuan akordioa eztabaidatzeko zain, Fronte Polisarioak dagoeneko iragarri ditu akordioa geldiarazteko eta, hala badagokio, auzitegietan errekurritzeko neurri judizialak.



Akordiorako esteka hemen


SAHARA
LIBRE
NO ES
MOROCCO
SAHARA

NBEko Segurtasun Kontseiluaren 2797 ebazpena

Urriaren 31ko ebazpenak urteetan geldituta dauden Polisario eta Marokoren arteko negoziazioak behartu nahi ditu, orain "koiuntura eta premia" dagoelakoan, baina bi aldeetako bati abantaila emanez. Horretarako, negoziazioaren helburu gisa saharar herriaren autodeterminazio eskubidea aipatzen badu, eta alderdiei aldez aurreko baldintzarik gabe joateko eskatzen badie ere, ebazpenak negoziazioak Marokoren autonomia-proposamenean (2007) oinarritzea proposatzen du, "irtenbiderik egingarriena izan daitekeelako".

Marokok euforiaz hartu du, eta urriaren 31n jai nazionala aldarrikatu du – independentziaren eta "Martxa Berdearen" datak bezala –, eta mendebaldeko eta arabiar herrialde gehienen babesa jaso du. Baina ebazpena, Marokoren aldeko propaganda alde batera utzita, ez da inola ere gatazkaren amaiera, ezta irtenbide iraunkorra ere ez.

Marokok nazioarteko harremanetan Trumpen administrazioaren norabide berria aprobetxatu nahi izan du bere proposamena inposatzeko, baina jokaldia ez zaio espero bezain arrakastatsua atera. Bere autonomia-proposamenari estatu askoren babesa lortzeko asmoz eta nazioarteko terrorismoarekin lotuta dagoela esanez Polisarioren irudia zikintzeko ofentsiba diplomatiko zabalaren ondoren, onartutako ebazpena urrun dago AEBk, Rabaten esanetara, idatzitako jatorrizko proposamenetik.

Beharbada Donald Trump Bakearen Nobel sarirako hautagaiak, lortuko du Maroko eta Polisarioa aurrez aurre berriro mahaira esertzea, eta hori bakerako aukera bat izan daiteke, baina 2797 beste ebazpenetako bat baino ez da; NBEk zazpi hamarkada luzetan gatazka luzatzeko baino balio izan ez duten dozenaka eman dituen bezalako beste bat. Orain arte NBEk ezin izan badu gatazka konpondu arrazoia kontraesan honetan dago: jatorrian deskolonizazio-gaitzat jotzen den arazo bat bi alderen arteko gatazka gisa tratatzen du Segurtasun Kontseiluak, eta konpontzeko bide horrek, nahitaez, bi alderdien arteko akordio bat eskatzen du. Akordio hori kontsulta baten ondorioz edo alde bati edo besteari presio jasanezinak egiteagatik soilik inposatu daiteke. Baina bi aukera haietako batek ere ez dirudi gaur egun behar bezain heldua denik.

Ebaspena

Iritzia (gaztelaniaz)

Giza Eskubideen eta Natur Baliabideen batzordeen bilera bateratua

Azaroaren 8an, Mendebaldeko Saharan giza eskubideen egoera eta baliabide naturalen espoliazioa aztertzeko eta koordinatzeko jardunaldia egin zen Gasteizen. Topaketa testuinguru bereziki esanguratsuan egin zen, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko urriaren 4an emandako epaiaren urte bat bete zelako eta Europar Batasunak eta Marokok merkataritza-akordio berri bat sinatu zutelako, non berriz ere sartzen baitira Saharako lurralde okupatuak.

Jardunaldiak aukera eman zuen gatazkaren bilakaeraren eta epai horren betetze-mailaren balantzea egiteko, bai eta EB-Maroko akordio berriaren ondorio juridiko eta politikoak ebaluatzeko ere. Era berean, lurralde okupatuetako egoerari buruzko hainbat txosten aurkeztu ziren, besteak beste, “Voces desde la resistencia” eta SMACO giza eskubideen arloan, baita SONREPen "Sostenible para quién? energia berriztagarriak eta okupaziopeko ingurumen-justizia" txostena ere.

Topaketak aukera eman zuen azken urtean egindako lana ebaluatzeko eta eragin politikoa eta juridikoa indartzeko eta EUCOCO2025ean aurkezteko ekintza bateratu eta koordinatuko proposamen definizioan aurrera egiteko.



Martxa Berdearen Eta Hiruko Akordioen 50. Urteurrena

1975eko azaroaren 6an hasi zen Martxa Berdea deiturikoa, Marokoren inbasio zibil eta militarra ekarri zuena Mendebaldeko Saharan, Estatu Batuen eta Frantziaren laguntzarekin eta Espainiaren konplizitatearekin. Horrela erantzun zion Marokok Nazioarteko Justizia Auzitegiak emandako irizpenari; irizpenak adierazten zuen Mendebaldeko Saharak ez zuela mendekotasun-loturarik Marokoko Erresumarekin.

Egun batzuk geroago, azaroaren 14an, Espainiak Mendebaldeko Saharako lurraldearen eta saharar herriaren "salmenta" sinatu zuen, hiruko akordioen bidez bere betebeharrak bertan behera uzten zituen, eta, Nazio Batuen eta nazioarteko zuzenbidearen xedapen guztiak urratuz, Mauritaniaren eta Marokoren esku utzi zuen lurraldea legez kanpo.

Urtero antolatzen ditugu jarduerak akordio horiek legez kanpokoak direla salatzeko eta Espainiari eskatzeko potentzia administratzaile gisa deskolonizazioa amai dezala saharar herriaren autodeterminazio eskubidea gauzatuz. Aurten, Gasteizko herritarrez eta diasporako sahararrez osatutako talde handi batek manifestazio bat egin du, eta Andre Maria Zuriaren plazatik irtenda, Gobernuak autonomia erkidegoan duen ordezkaritzaren egoitzara joan da, Senda pasealekura.



49 EUCOCO. Paris, 2025eko azaroaren 28an eta 29an

Aurten, Sahararekiko koordinazioari eta elkartasunari buruzko Europako konferentziak, EUCOCOk, formatu desberdina izan du azken edizioekin konparatuz. Horrek eta Madrilen egin ez izanak, Hiruko Akordioen 50. urteurrenean, kritika batzuk eragin ditu, eta Espainiako estatuko mugimenduko ordezkari gutxi bertaratu dira. EAEren eta Nafarroaren ordezkaritza, ordea, nabarmena izan da.

Programak lehentasuna eman nahi zien informazioari eta sakoneko eztabaidari, Saharako estatuaren eraikuntzari, baliabide naturalen espoliazioari edo Mendebaldeko Saharako giza eskubideen errespetuari buruzko ohiko tailerrei baino gehiago.[1]

Oro har, konferentziak bere helburuak bete ditu. Lehenik eta behin, Frantziak gatazka luzatzean eta Marokoren okupazio kolonialarekin lerrokatzean izan zuen paper nagusia salatzea. Prentsaurrekoa Frantzian ohikoa ez den hedabideen parte hartzea izan zuen, eta lehenengo bilkura Asanblea Nazionalaren egoitzan (parlamentuan) egitea ere esanguratsua da. Era berean, balio sinboliko handia izan zuen Errepublika Plazan egindako manifestazioak, konferentziaren amaierako ekitaldi gisa.

Konferentziaren ondorioak eta aurkeztutako tailerren txostenak kontsultatzeko esteka honetan.

Delegatu berria, Autonomia-erkidegoko Saharako Ordezkaritzan

Abenduaren 9an ekitalditxo bat egin genuen Elkartean Mohamed Fadel Mojtar agurtzeko, eskerrak emateko Ordezkaritzako buru gisa egin duen lanagatik, eta zorte ona opa Asturiasko Printzerrian Delegatu gisa egin beharko dituen lanetan. Bide batez, ongietorria eman genion Mujtar Leboihi Emboiric ordezkari berriari, lehenago Mexikoko SEADeko enbaxadore lanetan aritu denari.


Arabako SEADen Lagunen elkartea
La asociación de Amigas y Amigos de la RASD de Álava
2023-12-09
Mohamed Fadel Maitar
Eskerrik asko
En agradecimiento



Francesca Albanese, René Cassin Saria 2025

RASD-EN LAGUNEN ELKARTEA, BAKEA DUINTASUNEZ-OMAL eta BDZ EUSKAL HERRIA, mundu hobe, justu, zuzen eta baketsu baten alde lan egiten dugun erakunde mugimendu zabal baten parte garen aldetik, urteak daramatzagu kolonialismoaren gaitza, gerrak, atzerriko okupazioak eta enpresen eta estatuen konplizitatea salatzen, Palestinan, Mendebaldeko Saharan, Latinoamerikan eta mundu osoan.

Israelek herri palestinarraren aurkako eraso genozida areagotzen ari zen testuinguru batean, egunero batez beste 100 hildako baino gehiago eragiten zituen sarraski masibo bat eginez, hiru erakundeok, pertsona eta herri guztien giza eskubideen defentsarekin konprometituta, kanpaina arrakastatsu bat abiarazi genuen elkarrekin, Eusko Jaurlaritzak urtero ematen duen Giza Eskubideen René Cassin 2025 sarirako Francesca Albaneseren hautagaitza babesteko. Francesca Albanese 1967tik okupatutako Palestinako lurraldeetako giza eskubideen egoerari buruzko errelatore berezia da.

Kanpainak 115 erakunde eta 1.200 pertsona baino gehiagoren babesa jaso zuen, eta, azkenean, Epaimahaiak saria eman zion Francesca Albaneseri, Palestinarako errelatore bereziaren kargua hartu zuen lehen emakumeari.

Gazan gertatzen ari den genozidioaren salaketa zorrotz eta dokumentatuan izan duen paper ausartagatik eta, horren ondorioz, izan dituen eraso eta mehatxu onartezinengatik Francescari egiten zaion aitortza herritarren mobilizazioen eta giza eskubideen, bakearen eta Francescaren errekonozimenduaren aldeko elkarlanaren emaitza arrakastatsua izan da.



Bidaiak kanpalekuetara

Hiruhileko honetan zehar, Elkarteko talde teknikoa behin baino gehiagotan joan da kanpalekuetara, proiektuak gauzatzen laguntzeko eta proiektuen jarraipena egiteko. Horretarako, laguntza indartzen duten eta gure lankide sahararren ahalduntzean lagundu duten hainbat arlotako adituen laguntza izan dute. Horrela, Marta Barambio itzuli egin zen Gazteria eta Kirol Ministerioko, Ur eta Ingurumen Ministerioko eta UJSARIOko Emakume Gaztea erakundeko emakume talde bati zuzendutako komunikazio-kanpainen garapenaren bigarren zatia egiteko.

Bestalde, laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikastaro bat emateaz gain, Miguel Barriok banaketa-sareei buruzko oinarrizko nozioen tailer bat eman zion Garraio eta Energia Ministerioko Elektrizitate Zuzendaritza Nagusiko elektrikari-taldeari. Bestalde, Asier Basterrak Garraio Ministerioaren tailerretako mekanikariei lagundu zien prestakuntza praktikoaren bidez, kamioietako matxuren konponketa aprobetxatuz.

Azkenik, Irantxu Mendia eta Gloria Guzmán, Hegoa unibertsitate-institutuko kideak UNMS Laguntzeko Euskal sarearen barruan burutzen ari diren sistematizazio-prozesuari dagozkion hainbat saio egin dituzte, bakarka zein taldeetan.






SEADen aldarrikapenaren 50. urteurrena

2026ko otsailaren 27an SEADen aldarrikapenaren 50. urteurrena ospatzen dugu. Hori dela eta, egun horretatik aurrera hainbat ekintza antolatzen ari gara elkartean. Oraindik jarduera asko zehazteke dauden arren, otsailaren 28an, 20:00etan, Bilboko Euskalduna Jauregian izango den “Saharari Kantari” kontzertuan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

1. PROMO BIDEOA



2. PROMO BIDEOA



SARREREN SALMENTA HEMEN